

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

XVII. mendeko celebrity-ak

SIMON VERELST



JOSHUA REYNOLDS



JOHN HOPPNER



Ezkerretik eskuinera, Eleanor Gwyn, 1680 inguruan; Sarah Siddons, tragediaren musa bailitzan, 1784an; eta Mary Robinson, Shakespeareren Perdita rolean, 1782an.

LONDRES, 1663. Eleanor Gwynek debuta egin zuen Bridges Street Theatre-n. 14 urte zituen, hori baino lehen laranja saltzen zituen antzokian, eta ez zekien irakurtzen, baina komediarako talentua omen zuen. Arrakasta handia lortu zuen antzezle moduan, eta Karlos II.a erregearen amorantea izan zen, baina etsaiak ere bazituen.

Izan ere, ordura arte aktore guztiak gizonezkoak ziren, baita emakumezko rolak jokatzeko zituztenak ere, eta askok ez zuten begi onez ikusi Gwynek eta ondoren etorri zirenek (Hester Booth, Kitty Clive, Sarah Siddons...) zabalduak bidea. Gizonezko antzezleekin gertatu ez bezala, garaiko argitalpenak emakumezko aktoreei buruzko informazioa argitaratzen hasi ziren, lanarekin baino gehiago emakume horien bizitza pribatuarekin zerikusia zuen informazioa. Baita irudi satiriko eta erotikoak ere. *Merchandising* modukoa egin zuten pertsonaia espe-

tsu horiekin: aktoreen irudia zuten porzellanazko figurak edo makillaje kuxak saltzen hasi ziren. Guztia, protagonisten baimenik gabe.

Hala, emakumezko aktoreak berehala jabetu ziren beren irudi publikoa zaintzearen garrantziaz. Garaiko margolari ezagunei irudia hobetzen lagunduko zien erretratuak eskatu zizkieten, eta batzuek, Mary Robinsoek eta Elizabeth Inchbaldek, esaterako, beren memoriak idatzi zituzten.

Orain Londresko National Portrait Gallery-k erakusketa antolatu du fenomeno hori azaltzeko. Emakume horiek antzezteko eskubidea nahi zuten, besterik gabe, baina mundu berri bat zabaldu zuten. Publikoa obsesionatu egin zen, eta emakumezko aktoreak maitatu zein gorrotatu, haiei buruzko dena jakin nahi zuten. *Celebrity*-en fenomeno jaio zen. ■



Arrastoak

Darwinen fosilak armairutik atera dira



BRITAINIAR GEOLOGIA ZERBITZUAREN egoitzako txoko ilun batean ahaztutako egurrezko armairu zaharra ireki eta Darwinek bildutako hainbat fosil aurkitu ditu Howard Falcon-Lang paleontologoak. Darwinen eta haren kideek jasotako eta kristalezko xaflatan gorde-

tako 314 fosil dira, 165 urtez galdutzat emanak. *Beagle* ontzian egindako bidaian bildu zituzten, eta Darwinen eboluzioari buruzko teoriaren oinarriak jartzeko baliatu zituen. Besteak beste, duela 400 milioi urteko onddo erraldoi baten arrastoak daude bilduman.